

## **IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDE ETA ELKARTEEI HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BOLUNTARIOTZA SUSTATZEAGATIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ARAUTZEKO ORDENANTZA.**

Boluntariotzak herritarren elkartasuna esan nahi du. Irabazi asmorik gabeko elkarte gehienek boluntario taldeak dituzte beraien programen onurak jasotzen dituztenei zerbitzuak, arreta eta ekintzak eskaintzeko, eta helburuak lortzeko ezinbestekoa da boluntarioen lana. Horrez gain, herritarren parte-hartze aktiboaren ikur dira eta herritarrei horren berri ematen diete.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekainaren 25eko 17/1985 Legeak, boluntariotzari buruzkoak, 6. artikuluan, boluntarioen eskubideez ari denean, honakoak eskubideak aipatzen ditu: *i) Gizarteari egiten dion ekarpenagatik errespetua eta aitopena jasotzeko eskubidea.*

Horrekin batera, IV Tituluko (Boluntariotza sustatzekoa) 12. artikuluan, Boluntariotza sustatzeko Neurri Orokorrak jasotzen dituenean, honakoa dio:

*Boluntariotza arloko ekintzak bultzatzeko orduan, euskal Administrazio publikoek beraien eskumenen barruan eta beraien aurrekontu-erabilgarritasuna kontuan hartuta, honako jarduerak bultzatzeko laguntza eskainiko dute:*

- a) Boluntarioak dituzten elkarten artean baliabide eta neurriak bateratzea, batez ere informazioa eta formazioa jasotzeko orduan.*
- b) Antolatutako boluntariotza sustatzeko neurriak, orokorrean, eta batez ere boluntariotza eraldatzailea lehenestea boluntariotza laguntzailearen aurretik. Arreta berezia jasoko dute elkarten arteko laguntza proposatzen dutenek, sektore-lana eta arlo bakarreko lana gainditzen dutenek, lurralde eta udalerriari lotutakoak.*
- c) Diruz-lagundu daitezkeen programak iragari, Administrazio Publikoak sortutako erregistro edo erroldetan izen emanda dauden elkarteekin mantentzeko, formaziorako eta jardueretarako hitzarmenak egin.*
- d) Boluntariotzari buruzko ikerketak, azterketak eta iragarkiak egin.*
- e) Elkartei informazio, dokumentazio, aholkularitza eta laguntza teknikorako zerbitzuak eskaini.*
- f) Boluntariotzari buruzko informazio kanpainak antolatu eta boluntariotzaren baloreak zabaldu.*
- g) Lan Boluntarioa publikoki aitortzeko ohorezko neurriak jarri.*
- h) Komunikabideetan boluntarioen mezua zabaltzea eta boluntarioek orokorrean egiten duten lana ezagutaraztea.*
- i) Autonomia Erkidegokoak ez diren elkarteekin harremana izatea bertako elkarteek.*
- j) Borondatezko zerbitzuak eskaintzeko lanaldia murrizteko edo egokitzeko neurriak.*
- k) Borondatezko jarduera garatzeko aldeko lege-, lan-, markoa eta marko fiskala sustatzea.*

Jarraibide hauek kontuan izanda, zenbait gizarte erakunde eta erakunde autonomiko batzuk, esaterako Euskal Autonomia Erkidegoa, azken urte hauetan guztietan, beraien arautegia eta plangintza osatzen aritu dira, eta boluntariotza saritzeko urteroko sariak prestatu dituzte, eta banaka edo taldeka borondatezko lanaren sustapenaren eta borondatezko lanaren bitartez egin diren proiektuen aitortpena egiteko.

Ordizian hasitako gizarte mailako sentsibilizazio prozesuan sakontzen jarraitzeko beharrak eta administrazio publikoei dagozkien eskumetan boluntariora eta ekimena sustatzeko lanek, tokian tokiko boluntariora eta elkarten mugimendua sustatzeko diru-laguntza programa martxan jartzea eskatzen dute. Horrekin batera udalerrin mailan jardura solidarioa sustatzen laguntzeko eta ohiko agenteen lana aitortzeko neurriak hartzen dira: Boluntarioak eta GKE.

Arautegi honen bitartez Ordiziako Udalak herritarren parte-hartze mugimendua sustatu nahi du era ordenatu eta arautuan, eta beraien programak antolatzeko boluntario taldeak kudeatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte eta pertsonen laguntza eskaini.

Tramitazio prozesuaren barruan, Gizarte Ongizateko Udal Aholku Batzordeak Ordenantza honi buruzko txostena egin du.

Aurrekoa kontuan izanda, eta Herritarren Parte-hartzea eta Boluntarioraren Sustapen Delegazioaren proposamenez, honakoa xedatzen dut:

## I.- DEIALDIAREN XEDE ETA HELBURUA:

Ordenantza honen xedea da Ordiziako Udalak diru-laguntzak, sariak eta orokorrean ekonomikoki zeharka edo zuzenean ematen duen laguntza oro emateko arautegiaren oinarri orokor eta bereziak zehaztea, Herritarren Parte-hartze eta Boluntarioraren Sustapen Arloko eskumenen barruan udalerrin Erakundeei, Elkartei edo norbanakoei laguntza emateko, honako jardura lerroetan:

- Boluntariorari buruzko formazioa, sustapena, sentsibilizazioa eta ikerketa sustatzeko programak eta proiektuak.
- Inbentarioan sar daitezkeen materialak lortzeko irabazi asmorik gabeko elkarteak (altzariak, ekipamendu informatikoa, bulego ekipamendua).

Beraien lana hobeto egin ahal izateko, laguntza hauen xedea herriko elkartei baliabideak eskaintzea da bere egitura sendotzeako.

## II. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK.

Diruz lagundu ahal izango dira irabazi asmorik gabeko elkarteek udalerrinaren intereserako aurkeztutako proiektu, jardura eta programak, beti ere, irabazi asmorik gabeko elkarteentzako, boluntarioentzako eta gizartearentzako proiektu boluntario antolatutak burutzen badituzte, udalerrin bertan, eta ondorengo atal batekin zerikusirik badute:

### 1. Boluntariorari buruzko formazioa, sustapena, sentsibilizazioa eta ikerketa:

- a) Pertsona boluntraioek, erakundeko edo antzeko elkarte bateko kideek burutzen dituzten jardurei buruzko formazio programak.
- b) Elkarten egoera ezagutarazteko, boluntariora sustatzeko eta lortzeko, sektorea eta sare-lana trinkotzeko jardunaldiak, seminarioak eta ekintzak antolatzea.
- c) Boluntarioraren alde eta elkarten alde Ordiziako herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea.

d) Ordizian boluntariotzaren egoera ezagutarazteko azterketak.

2. Inbentarioan sar daitezkeen materialak lortzeko gastuetarako (altzariak, ekipamendu informatikoa, bulego ekipamendua).

- a) Ekipamendu informatikoen bitartez Teknologia Berrietara egokitzea. PC finakoak, PC eramangarriak eta periferikoak, eta bideoak proiektatzeko kainoiak.
- b) Ekipamenduetan inbertsioak egiteko gastuak (altzariak, bulegoa, etab.)

3. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Indarrean dauden hezkuntza planetan aurreikusitako formazio programak.
- b) Izaera publikoko erakunde edo elkarteek garatu behar dituzten programa edo jarduerak.
- c) Boluntariotza sail desberdinetan zuzenean esku-hartzeko proiektuak edo jarduerak.
- d) Jaialdiak.
- e) Webguneak, blogak.
- f) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorreko 13.2 eta 13.3 artikuluetan zehaztutako edozein puntutan sartzen direnak.
- g) Izaeragatik edo xedeagatik Herritarren parte-hartzeari eta Boluntariotzaren Sustapen arloari ez dagozkion jarduerak.
- h) Konstituzioko eskubideak (14. art: jaiotza, arraza, sexu, erlijio eta iritziengatik diskriminatzea) urratzen dituzten erakunde edo elkarteek egiten dituzten proposamenak ez dira kontuan hartuko.

### III. UDALERRIAREN INTERESEKO HERRI ERAKUNDEAK

- a. "Udalerriaren intereseko" aitortuko dira herri erakundeen xede soziala eta burutzen dituzten ekintzak honakoak direnean:
  - Akordio, hitzarmen bidez edo zehaztutako beste era batean Udalak eskainitako zerbitzuekin lankidetzaren harremana badago, legeetan zehaztutako udal eskumenen barruan.
- b. Herriko erakundeek udalerriaren intereseko erakunde gisa aitortzeko prozedura hasi nahi badute, erakundeek beraiek hasi beharko dute, eskaera Alkatetzara zuzenduta, eta honakoa jaso beharko dute eskaerak:
  - 1. Udalerriaren intereseko erakunde gisa aitortzeko arrazoiak azaltzea.
  - 2. Jarduera memoria.
- c. Erantsitako agiri eta eskaerarekin, eta dagokion delegazioak txostena egin eta gero, proposamena Udal Gobernu Batzordeak jasoko du udalerriaren intereseko elkarte gisa aitortzeko, eta ondoren dagokion delegazioari eta ohiko gaien batzorde informatiboari emango dio horren berri.

Sortzen den espedientean, Udal Kudeaketarako Sail desberdinek txostenak erantsi ditzakete, herriko erakunde eskatzailearen xede sozialarekin bat egiten badute.

Oinarrizko Herri Elkartearen Federazio bat udalerriaren intereseko izendatzeak ez du esan nahi federazioa osatzen duten elkarte guztien aitortpena egingo denik.

Herri elkarteak udalerriaren intereseko izateko oinarrizko irizpideak ondorengoak izango dira:

- Ordiziako herritarrentzako interes publikokoa izatea, gizarte eta udalerrri mailan.
- Erakundearen xede soziala eta burutu dituen jardueren xede soziala, udal jardueren eta eskumenen osagarri direnean.
- Udal izaera publikoko erakundearen parte-hartze maila.
- Jarduera komunak garatzeko Udalaren eta Elkartearen arteko idatzizko akordio, hitzarmen edo kontzesioa egotea.

Udal Gobernu Batzordeak herriko erakundeak udalerriaren intereseko aitortzen dituenean, aitortpen hau Elkartearen Udal Erregistroan erregistratzen da ofizioz

#### IV. DIRU-LAGUNTZA ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Oinarriak aztertzeko, agiriak lortzeko edo interesatuei buruzko informazioa eskatzeko Herritarren Arreta Bulegora jo dezakezu, edo [www.ordizia.org](http://www.ordizia.org) webgunean begiratu dezakezu.

Diru-laguntzak jasotzeko honako agiriak aurkeztu beharko dituzu:

1. Diru-laguntza eskaera normalizatua, 1. Eranskineko agiria, behar bezala bete.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro orokorrean izen-emate ziurtagiria.
3. Udalerriaren intereseko Udal Erregistroan izen-emate ziurtagiria.
4. Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren agiriaren fotokopia.
5. Banku entitate batek edo aurrezki kutxa batek egindako agiria, eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetza egiaztatzen duena.
6. Diru-laguntza eskatzen deneko jardueren urteko programaren deskribapen zehatza edo proiektuaren definizioa. 2. eranskina
7. Sarrera eta gastuen aurrekontua. 3. eranskina
8. Erakunde eskatzailearen estatutuak eta curriculuma. Edukiak, helburuak, burututako ekintzak etab.
9. Erakundeei eskatutako diru-laguntza eskaeren edo dagoeneko jasotako diru-laguntzen adierazpena. 4. eranskina
10. 38/2003 Legearen 13 artikuluko 2 eta 3. paragrafoetan zehaztutako onuradun izateko baldintzak ez betetzeko arrazoirik ez izatea eskatzaileak, eta hori egiaztatzen duen adierazpena, prezio publiko edota zerga betebeharretan zorrik ez izatea jasotzen duena, eta indarrean dagoen legediak ezarritako Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta izatea.
11. Diru-laguntza justifikatzeko memoria (aurreko urtean jaso izanez gero). 5. eranskina
12. Aurreko urtean diruz lagundutako jardueraren balantze ekonomikoa (aurreko urtean jaso izanez gero) 6. eranskina

Udalak erakunde edo elkartearen izen-emate ofizioa egiaztatuko du udalerriaren intereseko Elkartearen Udal Erregistroan.

Jarduerei dagozkien 2. Eranskinean zehaztutako agiriak eskatzeaz gain, Udalak erakunde eskatzaileei beharrezkoa iruditzen zaion informazio osagarria eskatu ahal izango dio, aurkeztutako jarduerari buruzko balorazioa egiteko.

## V. AURKEZTEKO EPEAK ETA TOKIA.

Eskaerak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita 20 egun naturalekoa izango da.

Eskaerak Ordiziako Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan, Kale Nagusia 24, aurkeztu behar dira.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osatu gabe baldin badaude edo ordenantza honetan zehaztutako betekizunak ez baditu betetzen, hamar laneguneko epean akats formalak zuzentzeko edo eskatutako agiriak ekartzeko eskatuko zaio. Akats horiek zuzentzen ez baditu, eskatzaileak bere eskaera bertan behera uzten duela ulertuko da, eta eskaera bestelako tramitaziorik gabe artxibatu egingo da, indarrean dagoen araudiaren arabera.

## VI. ESKAERAK BALORATZEKO ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.

Diru-laguntza norgehiagoka sistema bidez banatuko da.

Eskaerak Herritarren Parte-hartze eta Boluntariotzaren sustapena Saileko zerbitzu teknikoek aztertu eta baloratuko dituzte eta Sail honetako Delegazioak egingo du diru-laguntzak emateko proposamena, ebazpena ateratzeko dagokion sailari (Alkatetza) zuzenduta.

Diru-laguntza lortu ahal izateko, erakunde eskatzaileek gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko dute gutxienez, zenbatekoa eta baremoak ondorengo irizpideen arabera zehaztuko dira.

a) Proposatutako programaren ezaugarriak, 40 puntu bitarte, ondorengo alderdiak kontuan izanda:

- Proposatutako programaren eta Herritarren parte-hartzea eta Boluntariotzaren Sustapen Sailaren helburuen eta lehentasunen arteko lotura, 2010 urteko deialdirako ondorengoak izango dira: formazioa eta sustapena, boluntariotzari buruzko sentsibilizazioa eta ikerketa eta Teknologia Berrien Egokitzapena ekipamendu indormatikoaren bitartez. PC finkoak, PC eramangarriak eta periferikoak, eta bideoak proiektatzeko kainoiak.
- Proposatutako programaren gizarte proiektzioa.
- Proposatutako programaren ibilbidea eta errotzea.
- Programaren aplikazio eta diseinuan genero eta kulturartekotasun ikuspegia sartzea.

b) Proposatutako programaren ezaugarriak, 30 puntu bitarte, ondorengo alderdiak kontuan izanda:

- Udalerrian etenik gabe martxan ibilitako urteak.
- Antzeko erakunderik ez izatea udalerrian.
- Proposatutako programaren ezaugarrien eta erakundearen estatutuetan zehaztutako helburuen arteko lotura.
- Elkartearen boluntariotza.

- Udalerrian dituen bazkide kopurua.
- Elkarteak antolatutako jardueren onuradunak.

c) Erakundearen finantza baliabideak, 30 puntu bitarte, ondorengo alderdiak kontuan izanda:

- Gastuaren aurrekontua eta kanpoko finantziazio tasa.

## VII. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Erakunde edo elkarte bakoitzari eman beharreko diru-laguntza zehazteko, aurrekontu bideragarritasun alorrean zenbait irizpide hartuko da kontuan, jardueran aurreikusten den defizita, eta eta jarduera bereraro aurreko urteetan emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du onuradunak garatutako jardueren kostua gaindituko, ez elkarteak berak bakarrik duen diruarekin edo beste Erakunde publiko edo pribatuen, edo beste administrazio Publikoren diru-laguntzekin batuta.

Horrekin batera, Udalak, erakunde edo Elkarte eskatzaileei bere jabetzako lokalak erabiltzen utzi diezaieke, lokalen erabilgarritasuna kontuan izanda, eta horretarako interesatuek dituzten benetako beharrak izango ditu kontuan Udalak.

Diru-laguntza jasotzen duten jarduerak burutzean utzi beharko diote elkarteek lokala erabiltzeari, eta kasu batzuetan hurrengo urteko deialdira arte erabili ahal izango dute.

Lokala erabiltzan jarraitu ahal izango dute urtero Udalak horrela erabakitzen badu.

## VIII. EBAZPEN EPEA

Eskaerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta gehienez 3 hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko dira.

Zehaztutako epean ebazpenaren berririk emango ez balitz, dagokion eskaerak ukatu egin direla ulertu beharko da, administrazio prozedurari buruzko arautegian finkatutako isiltasun ondorioekin.

## IX. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezke diruz lagundutako jarduerari dagozkion gastuak, eta oinarri hauetan zehaztutako epean egiten direnak. Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31 artikuluan zehaztutakoarekin bate eginez, beti ere.

Agindu honetan zehaztutakoez gain, ez dira diruz lagunduko:

- Administrazio, antolakuntzako barne-gastuak.
- Bazkari, afari edo ostalaritzako beste gastuak, diruz lagundutako jardueretan parte hartze zuzena dutenek sortutakoak izan ezik, jarduera antolatzen dutenen gastuak kanpoan geratuko dira.

Hala ere, zalantzazko kasuetan, gastua egin aurretik galdetzea gomendatzen da.

## X. DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA ETA GASTUAK ZURITZEKO ERA.

Ebatzitako diru-laguntzaren %75a kontzesio unean ordainduko da, eta gainerako %25a egindako gastuaren zuriketa egin ondoren ordainduko da.

Burututako gastuaren frogagiri originalak (fakturak, nominak, kontratuak, etab.) edo konpultsatutako fotokopiak aurkeztuta egingo da zuriketa; frogagiriaren zerrenda batekin batera eta honako agiriak erantsita:

- Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria zehatza.
- Sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa.
- Ikusentzunezko agiriak edo agiri grafikoak (kartelak, programak). Baldin badaude.

Gastuak zuritzeko aurkezten diren fakturak ondorengo datuak izan behar dituzte:

- Klubaren, Erakundearen, Elkartearen etab., identifikazio argia.
- Hornitzailearen edo kontratatzailearen identifikazioa
- Faktura data.
- Hornidura edota zerbitzua ematen duen jarduera
- Horniduraren edota zerbitzuaren deskribapena.

Ez dira frogagiri gisa onartuko:

- Faktura edo ordainketa frogagiriak bidali aurretik horiei dagozkien gastu-oharrak.

## XI. ZURIKETARAKO EPEA

Gastua zuritzeko agiriak deialdiaren ondorengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira.

## XII. IRAGARKIA

Diru-laguntzen onuradunek diruz lagundutako jardueretako iragarki guztietan Ordiziako Udalaren laguntza dutela adierazi beharko dute, Udalaren irudi korporatiboa errespetatuz.

Horrekin batera, onuradunek komunikatzeko erabiltzen dituzten bide guztiak, idatziak nahiz ahozkoak, elebidunak izan behar dute, eta euskarazkoak lehentasunezko tratua izango du (ordena, tamaina, kokapena, etab.), euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzeko Ordenantzak zehaztutakoa betetzeko.

Indarrean dagoen iragarkien Udal ordenantza bete beharko da.

Beste alde batetik, Udalak emandako diru-laguntzak argitaratuko ditu Diru-laguntzen Lege Orokorraren 18 artikulua zehaztutakoa betez.

### XIII. EZ BETETZEAK

Ordenantza honetan edo diru-laguntzen banaketan zehazten den edozein betebeharrak ez bada betetzen, edo jasotako diru-laguntza behar bezala zuzentzen ez bada, diru-laguntza berriro aztertuko da, eta kasuan kasu, banatutako diru-kopurua, itzultzeko eskatu, jaitsi edo baliogabetu ahal izango da.

### XIV. DIRU-LAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLA

Diru-laguntzen onuradunek eta diru-laguntzaren edo bere zuzentzailearen xedearekin lotura duten hirugarrenen Ordiziako udalak diru-laguntzen behar bezalako aplikazio eta zuzentza egiaztatzeke burutzen dituen finantza kontrol eta frogak pasatu beharko dituzte.

### XV. BOLUNTARIOTZA LANAREN URTEROKO SARIA.

Urtero, Herritarren Parte-hartzea eta Boluntariotzaren Sustapena Delegazioak elkarte edo erakunde batek boluntariotza arloan egindako lana eskertzeko sari bat ematea proposatuko dio Alkatetzari, eta diru-kopuru bat izango da, urteko aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera, 3.000 eurokoa eta oroitzapenezko plaka bat.

Bestalde, sari bat banatu ahal izango da, esker oneko plaka bat izango da, eta pertsona edo pertsona batzuentzako izango da boluntariotza arloan egindako lana eskertzeko.

### XVI. INTERPRETAZIOA

Herritarren parte-hartzea eta Boluntariotzaren sustapena Delegazioak ebatziko du Ordenantza hau interpretatzerakoan sor daitezkeen edozein zalantza, eta ondoren dagokion udal organoari horren berri emango dio.

### XVII. ARAUTEGI APLIKAGARRIA

Honako oinarrietako edukia ondorengo legeetan araututakora egokitu da: Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, eta Diru-laguntzen eta bere Araudiaren 38/2003 Legea, azaroaren 17koa.

### XVIII. KLAUSULA GEHIGARRIAK

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratuko da, Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.



## XIX. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak jasotakoaren arabera, " ERREKLAMAZIOAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK" izeneko fitxategian zuk emandako izaera pertsonaleko datuak jasoko ditugula jakinarazten dizugu; eta fitxategiaren arduraduna ORDIZIAKO UDALA da, Kale Nagusia 24 20240 Ordizia helbidea duena. Fitxategi honek eskatutako diru-laguntzen tramitazio eta ebazpenerako behar den informazioa kudeatzea du xede. Interesatuak beraiei dagozkien eskubideak erabili ahal izateko Ordiziako Udaleko Segurtasun Batzordera idatzi bat bidali ahal izango dute, aurretik adierazitako helbidera.

